



4.9. Mezularitza zerbitzua

1. Alderdi orokorrak

1.1. Zer hartzen du barruan

Herri administrazioak egunero mezularitza zerbitzuak erabiltzen ditu dokumentuak eta pake-teak banatzeko edota bidaltzeko administrazioaren beraren bulegoetara, lantoki bat baino gehiago badu eta eskualdeko bestelako erakundeetara edo eragileei (enpresak, herritarrak, beste administrazio batzuk); eta, gutxiago bada ere, estatuko gainerako tokietako eta nazioarteko administrazioetara ere bidaltzen ditu gauzak.

Kapitulu honetan azaltzen eta aurkezten dira mezularitza zerbitzuaren inpaktuak gutxitzeko neurriak, ondoko bi mailetan:

- Barne banaketak, administrazioaren beraren sailen eta eraikinen artekoak, barne posta gisa ezagututakoak.
- Kanpo bidalketak, hirigunean, probintziara edota EAEko gainerako lurraldeetara egingidakoak.

Bestelako autonomia erkidegoetara edo nazioartera egindako bidalketak ez dira barnean hartu.

1.2. Non gaude

Produktu talde hau ez da arrazoi ekonomikoak direla-eta bakarrik aukeratu, gastu publikoari dagokionez. Zerbitzu zentralizatua delako aukeratu da, batik bat, eta ingurumen irizpideak txertatzea erraza delako; gainera, udal sail guztiek erabiltzen dute, horregatik, errazagoa da langileak zerbitzuaren eraginen inguruan eta herri administrazioak ingurumenean duen inpaktua gutxitzeko denok lagun dezakegunaren inguruan kontzientziaztea.

Espainiako estatuko mezularitza sektorearen datuen arabera, zerbitzu gehienak (% 75) gutun-azalak dira eta estatuan banatzen dira; gutxi batzuk, berriz, udalerrian bertan. Bidalketen urgentziari dagokionez, % 25 besterik ez dira berehalakoak, eta % 75 urgenteak edo erdi-urgenteak¹. Bidalketak egiteko gehien erabiltzen dituzten ibilgailuak motorrak, turismoak eta furgonetak dira, nahiz eta batzuk hegazkinez ere egiten diren (berehalakoak eta distantzia luzekoak).

¹ Mezularitza enpresen Espainiako Elkartearen aurkezpena Courier&Parcel Logistics Summit biltzarrean Bartzelona, 2007.



Garraio bide horiek guztiak dira EAEko berotegi efektuko gas isurpenen erantzule hein handi batean (BEG isurien % 22), eta, batez ere, errepideko garraioa da eragile nagusia: isurien % 95². Errepide bidezko garraioari lotutako beste inpaktu batzuk hirietan, batik bat, airearen kalitatea okertzen duten bestelako errekontza-gasen isurpenak dira, baita zarata ere.

Mezularitza enpresen ezaugarria, oro har, administrazio zereginez eta enpresaren ibilgailuak (normalean furgoneta handiak) gidatzeaz arduratzen diren soldatapeko langile gutxi izatea da. Gainerako langileak autonomoak eta zerbitzuan erabiltzen diren ibilgailuen jabeak³ dira. Lana aldi baterakoa izaten da, beraz, enpresek langileen txandaketa handia izaten dute. Horregatik guztiatik, enpresek jarduteko eremu mugatua dute zerbitzurako ibilgailu flotaren eraginkortasun energetikoan, ibilgailuen ezaugarriak langileen aldaketen arabera direlako.

Inpaktu nagusia garraioari lotuta dagoen arren, litekeena da ingurumenean eragina duen bigarren elementua bilgarriak izatea, bai administrazioak jarritakoa, bai mezularitza enpresak ondoren ipinitakoa.

1.3. Nola jokatu

Mezularitza zerbitzuak ingurumenean dituen inpaktuak murrizteko abian jar ditzakeen ekin-tzek hiru ildo jarraitzen dituzte, nagusiki:

- Bidalketak arrazionalizatzea, ohiko bidalketak beharrezko teknologia berriak erabilia; banaketa-estrategia aldatzea eta bidalketak hobeto koordinatzea administrazioaren sailen artean.
- Zerbitzuaren kutsadura iturri nagusiaren inpaktuak gutxitzea, hau da, garraioarenak:
 - erregai gutxiago kontsumitzen duten, CO₂ eta bestelako errekontza gasen isurpen gutxiago sortzen dituzten eta zarata eta hondakin gutxiago eragiten dituzten mezularitza sistemak aukeratuta, adibidez, bizikletak, ibilgailu elektrikoak edota eraginkortasun energetiko handiagoa duten ibilgailuak, bidalketa motaren arabera, eta
 - administrazioari langileen zein mezularitza zerbitzuko langileen artean gidatze modu eraginkorra bultzatuta, bai barne postarako, bai kanpoko bidalketarako.
- Bilgarrien hondakin gutxiago sortzea, bilgarri berrerabilgarriak erabilia eta haien kalitatea hobetuta, ingurumenean inpaktu gutxien dutenak aukeratuz, hau da, material birziklatuz egindakoak, erraz birziklatu daitezkeenak edota biodegradagarriak aukeratzea.

² Ingurumen Esparru Programa multzoa, 67. alea, 2007ko abendua. *EAEko berotegi efektuko gas isurien inbentarioa (1990-2006)*. Iñobe. Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila. Eusko Jaurlaritza.

³ EKPB programaren barruko mezularitza foroan parte hartu zuten enpresen arabera.

2. Jardunbide egokiak

2.1. Nola gutxitu kontsumoa

Mezularitza zerbitzuaren kontsumoa murrizteko, jarduerak hiru alorren ingurukoak izan daitezke.

Bidalketa kopurua, beraz, joan-etorrien kopurua gutxitzea

Erakunde batek mezularitza zerbitzua kanpoan kontratatzen duenean, sail bakoitzak zerbitzua emango dio(te)n enpresa esleipenduna(k) aukeratuko d(it)u. Mezularitza eta paketeria sektorearen datuen arabera, bidalketen % 25 besterik ez da berehalakoa, eta % 75 urgentea edo erdi-urgentea⁴. Hala, sailek berehalakoak ez diren bidalketak koordina ditzakete, prozedura bat sortuta eta egun berean sail guztiek egin beharreko bidalketak jasoko dituen arduraduna izendatuta (adibidez, 12:00 baino lehen), ondoren mezularitza enpresarekin harremanetan jarriko da eta bidalketa guztiak jakinaraziko dizkio. Hala, mezulariak ez dira behin baino gehiagotan joan behar erakundera.

Barneko postari dagokionez, eraikinen edo bulegoen artean agiriak jasotzeko eta bidaltzeko egunean bira bakarra, edo gehienez bi, egin behar dira, bat agiriak biltzeko eta bestea agiriak entregatzeko. Paketeak edo gutun-azalak harreran utzi beharko lirateke, eta atezaina edo harreragilea barne postaren ardura duen enpresarekin harremanetan jarri beharko litzateke, bidalketarik dagoen jakinarazteko (zerbitzua hasi baino 30 minutu lehenago).

Argitalpenen ondoriozko masako bidalketak egiteko, argitalpenen fitxan nabarmendutako bidalketak minimizatzeko neurriak hartu beharko dira kontuan.

Azkenik, inprimatutako edo formatu digitalean dauden agiriak euskarri informatiko bidez bidaltzeko, web orrien bitartez asko pisatzen badute. Bidalketa egiten duen erakundeak edo enpresak bidali nahi dituen dokumentuak zerbitzari batera igo ditzake, eta posta elektronikoko bidez jakinarazi diezaioke hartzaileari agiriak deskargatzeko helbidea. Prozedura berbera erabil daiteke deialdien zein diru-laguntzen inguruko agiriak eta beste dokumentu batzuk bidaltzeko, sinadura digitalaren sistema ezartzen denean.

33. KASUA: Eusko Jaurlaritza

2006tik, Eusko Jaurlaritzak kontratazio elektronikorako sistema ezarri eta bultzatu du, administrazio zentralaren lizitazio irekietarako, mugatuetarako eta negoziatuetarako. Eusko Jaurlaritzak artxiboko prozedura guztiak elektronikoki egiteko eredu global aitzindaria ezarri du. Horrek barnean hartzen ditu barne prozedurak (eskaintzak, lotutako dokumentazioa, lizitazioen hasiera, eta abar argitaratzea) eta kanpokoak (abisuak, aurkezpenak, kontratuen sinadurak... jasotzea). Sistema horren ingurumen hobekuntza inprimatutako dokumentuak eman behar ez izatea da, alde batetik, eta beraz, paperaren kontsumoa gutxitzea; eta enpresen eskaintzak posta edo mezularitza bidez bidali behar ez izatea, bestetik.

2006-2007 aldian, 100 espediente izapidetu dira elektronikoki, eta eskaintza digitalen % 50 horrela jaso da. Batez beste, eskaintzen % 33 digitalak izan dira, eta baliabide naturalen kontsumoa eta mezularitza beharrak gutxitu dira.

⁴ Mezularitza enpresen Espainiako Elkartearen aurkezpena Courier&Parcel Logistics Summit biltzarrean Bartzelona, 2007.



Zerbitzuan erabiltzen diren ibilgailuen kontsumoa gutxitzea

Kontsumoa murrizteko beste modu bat, ibilgailuen eraginkortasun energetikoarekin eta mezularien gidatzeko moduarekin lotuta dago zuzenean. Gai horri buruzko informazio gehiago azaltzen da 3. atalean, Kontuan hartu beharreko ingurumen alderdiak eta alderdi teknikoak izenekoan.

Bilgarri kantitatea murriztea

Administrazioak bidalketak egin aurretik, dokumentuak paperezko gutun-azaletan, plastiko erretraktilean, kartoizko kutxetan eta abarretan sartzen dira haiek babesteko. Barne posta zerbitzuan askotan erabilera anitzeko gutun-azalak erabiltzen dira. Erabilera bakarrekoak baino gramo gehiago dituzte, eta hartzailearen helbidea idazteko hainbat toki dituzte. Gutun-azal horiek erakundearen barnean erabiltzen direnean, ezinbestekoa da konturatzea sail batzuk bidaltzaile nagusiak eta beste batzuk hartzaileak izaten direla; hortaz, erabiltzen direnak baino gutun-azal gehiago dituzten sailek gehiago behar dituztenei bidali behar dizkiete zirkulua ixteko eta gutun-azalak behar bezala erabiltzeko.

34. KASUA: Arabako Foru Aldundia

Arabako Foru Aldundiak barne-posta zerbitzuan erabilera anitzeko gutun-azalak baliatzen ditu.

Foru Aldundiak bi gutun-azal mota ditu. Gutun-azal handiak 32,5 x 22,9 cm ditu, eta tolestu gabeko DIN A4 orri ugari bidaltzeko erabiltzen da, gehienez, 10 aldiz. Txikiak 22,8 x 16,1 cm ditu, eta tolestutako DIN A4 orrietarako erabiltzen da, gehienez, 8 aldiz. Gainera, gutun-azalak paper birziklatukoak dira.

35. KASUA: Ihobe

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak, Ihobek, kartoizko kutxetan jasotzen du posta arrunta. Harrerako arduradunak posta sailkatzen du eta sozietateko langileen artean banatzen du.

Ondoren, ondo dauden kutxak desmuntatzen ditu eta beste batean berrerabiltzeko gordetzen ditu. Hala, Ihobek bidalketa handi bat egin behar duenean, kutxa horietako bat hartu, berriz muntatu, materiala sartu eta mezularitza enpresari ematen dio.

Jardunbide egoki horri esker, astean 4 edo 5 kutxa aurrezten dituzte (200 inguru urtean), baita horien kartoizko hondakinen kiloak ere.

Kanpoko mezularitza urgentean, bilgarriaren tamina bidali beharreko produktuen neurriari egokitu behar zaio eta enpresa esleipendunarekin hitzartu behar da bidalketei ez diezaiela beste gutun-azal bat jarri, hondakin kopuru bikoitza ez sortzeko. Gainera, hondakin horiek normalean ez dira material berberekokoak izaten (mezularitza enpresarena plastikozkoa eta erakundearena paperezkoa izaten da), beraz, gaikako bilketa zailagoa izaten da, hartzaileak duen hondakin sistemagatik.

2.2. Nola jakin zein diren benetako beharrak: adierazleak

Litekeena da, urteen arabera, mezularitzaren beharrak aldatzea, hala ere, aurreko urteetan oinarrituta, estimazio batzuk egin daitezke.

Garrantzitsuagoa da mezularitza zerbitzuak sortutako kalteak ezagutzeko esandako adierazleak baliatzea. Klima aldaketaren aurkako borrokari dagokionez, administrazio asko beren jarduerak sortutako berotegi efektuko gas isuriak zenbatzeko prozesu bat garatzen ari dira. Horrek eraikin publikoen edo barne erabilerarako ibilgailuen kontsumoetan oinarritutako hainbat elementu hartzen ditu barnean. Dena den, zeharkako beste aldagai batzuk, esaterako, administrazioiko edo kontratatutako hirugarren enpresen dokumentuen bidalketan eragindako isurpenak, ez dira kontuan hartzen, isurpen guztien zati handi bat izan arren.

Hortaz, mezularitza zerbitzuaren inpaktuak ezagutzeko, eta informazio hori langile publiko guztiak kontzientziatzeko erabiltze aldera, edo administrazioaren isurpenak kalkulatzeko aldera, mezularitza zerbitzua ematen duten enpresei eskatuko zaie aldian-aldian txostenak aurkez ditzatela, ondoko datuekin:

- Garraio mota bakoitzarekin (turismoak eta furgonetak, motorrak eta bizikletak) urtean egindako joan-etorriak eta kilometroak, eta eragindako CO₂ isurpenak, guztira. Motor bidezko ibilgailuak (motorrak eta furgoneta txikiak zein handiak) erabiltzeko, lizitazioan kalkulaturako enpresa esleipendunaren batez besteko kontsumoa eta CO₂ isurpenak aplikatuko dira.
- Garraiobideen erabilera ehunekoak, motaren eta norakoaren arabera (hirigunekoak eta EAE barrukoak).
- Administrazioak egindako bidalketa guztien zerrenda, egunaren, helbidearen eta garraiobidearen arabera sailkatuta, baita bidalketen eskaera ordua eta saila ere. Informazio horrekin bidalketak hobe koordinatzeko modua eta ezarritako neurrien eraginkortasuna kalkula daitezke.

Zerbitzuaren arabera, enpresa bat baino gehiago kontratatuta egon daitezkeenez, administrazioak horien datuak eman behar ditu, zerbitzuaren irudi osoa lortu ahal izateko.

2.3. Zer eta nola kontratatu dut

Mezularitza zerbitzuak, sarreran adierazi den bezala, hainbat zeregin betetzen ditu, eremu geografikoaren eta hartzaileen arabera. Hala, administrazioak ondoko zerbitzu hauek kontrata ditzake:

- Barne-posta, administrazioaren beraren eraikinen artean bidalketak egiteko. Zerbitzua erakunde publikoaren langileek ere egin dezakete.
- Kanpo mezularitza, hiriguneeen artean edota EAEn barnean, Espainiako Estatura edo nazioartera.



Zerbitzu horiek guztiak kontratu ezberdinetan edota loteetan banatutako kontratu berean eskain daitezke. Azken hori oso garrantzitsua da, enpresa txikiek eta ertainek loteetan parte hartzeko aukera izan dezaten.

Bidalketa kopuru zehatza ezin denez aurrez jakin, kontratazioaren prozedura aurreko urtean kontratatutako zerbitzuen arabera zehaztuko da. Hain ohikoa ez den beste aukera bat, kanpo mezularitza zerbitzuetarako kontratu markoak ezartzea da. Oro har, mezularitza zerbitzuak zentralizatuta kontratatzen dira, barne-posta beste sail batek kudeatu dezakeen arren.

Zerbitzurako definitu daitezkeen loteen artean, udalerrian bidalketak motor bidez egiteko zerbitzurako lote bat eskain daiteke, eta beste bat bizikleta bidezko mezularitzarako, bete beharreko eremuaren arabera (eremuaren erliebea eta paketeen neurria eta pisua kontuan hartu behar baitira). Bi zerbitzu mota aurreikusten badira, bermatu beharko da udal langileek ez diotela zerbitzuaren prezioari begiratzen, eta bidalketaren hartzailerearen kokalekuaren arabera aukeratzeko dutela zerbitzu bat edo bestea.

Bizikleta bidezko mezularitza kontratatzen duen erakundeak ingurumen konpromisoa erakusten du, eta langileek errespetatu eta bultzatu egin beharko dute. Gainera, enpresa hirugarren sektorekoa bada, bazterketa jasateko arriskua duten pertsonak laneratu beharko ditu, sozialki arduratsua den erosketa publikoa egitean.

36. KASUA: Oraintxe

Oraintxe, mezularitza urgenteko enpresa da, 1998 sortu zuten eta ezaugarri berezi bat du: bizikleta bidezko zerbitzua ematen du Bilbon eta Getxon.

Hala, hiriko trafikoa murrizten laguntzen du, ez du hiriko airea kutsatzen, energia aurrezten du, erregairik erabiltzen ez duelako, eta ingurumena errespetatzen duten garraiobideen erabilera bultzatzen du.

Baina enpresaren konpromisoak sozialaren alorra ere ukitzen du, gizarteratze eta laneratze enpresa baita, hau da, lanean hasteko zailtasun berezia duten pertsonak kontratatzen dituena.

2.4. Nola kudeatu erabiltzen hondakinak

Mezularitza zerbitzuaren inguruan, administrazioak gehien sortzen dituen hondakinak gutunen edo paketeen bilgarriak izaten dira. Baina, berezitasuna zera da, hondakinak paketeen hartzailerearen kokalekuan sortzen direla.

Gainera, mezularitza enpresek batzuetan gutunei edo bidalitako produktuei beren gutun-azal ere jartzen dizkiete, eta horrez gain, bidalketen jasotze agiriekin ere hondakinak sortzen dituzte.

Ildo horretatik, administrazioak bidaltzaile gisa, bilgarriak minimizatzeko neurriak aplikatu eta 2.1. atalean aipatutako sistema berrerabilgarriak erabili behar ditu Nola gutxitu kontsumoa? edota hain kaltegarriak ez diren materialak.

Hartzaille moduan, bilgarrien hondakinak kudeatzeko neurri bakarra gaikako bilketa da.

3. Kontuan hartu beharreko ingurumen eta teknika alderdiak

3.1. Garraioa

Errekuntza (gasolina eta gasolioa) bidezko garraioaren inpaktu nagusia CO₂ eta beste gas kutsagarri batzuen isurpenak dira, erregai fosilen kontsumotik eratorriak:

- CO₂ isurpenak ibilgailuen kasuan (turismoa, furgonetak eta motorrak), darabilten erregaiaren eta erregai kontsumoaren arabera dira CO₂ isuri horiek.

Laugarren atalean azaltzen denez, *turismoek eta furgonetek* batez besteko kontsumo balioak (litro/kilometroko) eta CO₂ isurpenak (CO₂ gramo/kilometroko) biltzen dituen etiketa ofiziala dute. Horrez gain, energia eraginkortasunaren etiketa ere badago: etiketa horrek ibilgailuen eraginkortasun maila sailkatzen du (handienetik txikienera), haien azalera oinarri hartuta.

Motorren kasuan, ez dago CO₂ isurpenen etiketa ofizialik, ezta kontsumo daturik ere, eta jabeak eskatu behar dizkio zuzenean fabrikatzaileari.

Hortaz, mezularitza enpresa aukeratzeko, enpresen turismoen eta furgoneten flotaren CO₂ isurpenak ahalik eta txikiak izatea balioztatzea proposatzen da, eta enpresaren motorren flotaren isurpenak ere txikiak izatea balioztatzea, enpresak horri buruzko informazioa ematen badu.

- *Errekuntza gas kutsagarrien isurpena* CO₂ isurpenez gain, ibilgailuek beste gas batzuk isurtzen dituzte: partikulak, erre gabeko hidrokarburoak (HC), karbono monoxidoa (CO), nitrogeno oxidoa (NOx) edo metanoa (CH₄), besteak beste. Aipatutako gasak berotze globalari, ozono geruza suntsitzeari eta airearen kalitatearen okertzeari besterik ez diote mesede egiten.

Ibilgailuen kasuan (turismoak zein furgonetak) EBk aipatutako osagaien isuri kopurua murriztera bideratutako EURO estandarrak onartu ditu: 2005. urtean, EURO 4 maila jarri zen indarrean, eta EURO 5 maila berriz 2009ko irailerako dago aurreikusita ibilgailu berrien homologazioari dagokionez, eta 2011rako, berriz, gainerako ibilgailuen homologazioari dagokionez.

Batzordeak *motorrek* isuri ditzaketen gas kutsakorren mugak ere ezarri ditu, EURO estandarren antzerakoak, eta ibilgailuak homologatzeko bete behar dituzte.

Beraz, errekkuntza-gas gutxien isurtzen duten flotadun mezularitza enpresak hautatuko dira.

- *Zarataren igorpenak*. Hiriguneetan zarata oso arazo larria da gaur egun, eta trafikoa da haren sorbururik nagusietakoa. Abiadura handian, efektu aerodinamikoak eragiten du zarata; abiadura txikian, ordea, gurpilaren eta zolaren arteko kontaktuak (orduko 30 km-tik gora) eta propulsiio sistemak (orduko 30 km-tik behera) dira zarataren eragile nagusiak⁵.

⁵ Garraioko eta Ingurumenerako Europako Federazioa, <http://www.transportenvironment.org/module-htmlpages-display-pid-20.html#2>.



Europar Batasunean isurpen gasak isurtzeko sistemetakoko gehieneko muga akustikoak zehaztu diren arren, litekeena da ibilgailuek maila txikiagoak izatea, eta horiek balioztatu egingo dira enpresak aukeratzeko unean.

Mezularitza zerbitzuetan erabiltzen diren eta CO₂ eta errektuntza-gas gutxien isurtzen eta zarata gutxien igortzen duten garraiobideak bizikletak dira, hala ere, ezin dituzte zerbitzu guztiak eman, eta hiri barruko eta pisu gutxiko bidalketetara mugatzen dira.

Ibilgailuentzako teknologien alorrean, elektrikoek (Espainiako Estatuaren mix energetikoa aintzat hartuta) isurpen eta zarata gutxiago eragiten dute, baina ingurumenaren aldetik beste batzuk baino hobek diren guneetan erabili behar dira, hau da, distantzia laburretan eta hirigunean.

3.2. Modu eraginkorren gidatzea

Garraioaren inpaktuak ibilgailuen energia eraginkortasunak eta gidatzeko moduek eragiten dituzte. Ikerketa batzuen arabera, gidatzeko moduak sekulako eragina du kontsumoan, eta % 25eraino aurrez daiteke⁶. Horregatik, ibilgailuak gidatzea oinarri duen zerbitzu batentzat, mezularitza alegia, garrantzitsua da gidariek modu eraginkorren gidatzeko ikastaroak jasotzeko izana.

3.3. Bilgarriak

Aurretik aipatu dugun bezala, mezularitza zerbitzuetako bilgarria bidalitako produktuak batesteko, bidalketa bakarrean gauza bat baino gehiago bidaltzeko edota hartzailaren helbidea adierazteko erabiltzen da.

Hartzaila administrazioa bera ez denean, bilgarriak erraz berrerabili ezin daitezkeen hondakin bilakatzen dira. Kasu horietan, 2.1. atalean adierazitako neurriak aplikatu beharko dira, bilgarriak minimizatzen. Nola gutxitu kontsumoa? birziklatutako materialez egindako edo birziklagarriak diren bilgarriak erabili beharko dira.

Normalean, plastiko erretraktilak erabili gabeko materialekin ekoizten dituzte, lodieragatik eta gardentasunagatik zaila baita birziklatutako plastikoarekin fabrikatzea. Gainera, normalean zer plastiko mota duen ez dioen (osagaiak jakiteko) eta Ecoembes (birziklatzeko kanona ordaindu den jakiteko) markarik ez duen produktua denez, askotan ez dira birziklatzeko bereizten, eta gaikako bilketa egiten bada, haiek birziklatzea zaila izaten da, ez baita jakiten zer plastiko mota den, eta hortaz ez baita jakiten zabortegira edo erraustegira bidali behar den. Azken horrek arazo ugari eragiten ditu plastikoak halogenatuak badira.

Paperezko edo kartoizko gutun-azalek edo bilgarriek, aldiz, paperezko produktu guztiek bezala, beste materialek baino gaikako bilketa eta birziklatze tasa handiagoak dituzte. Gainera, askotan birziklatutako paperezko zuntz portzentaje handia dute, beraz, zikloa ixten da (gaika bildutako paperezko hondakinak paperezko edo kartoizko beste produktu batzuen lehengai bilakatzen dira).

Beste aukera bat plastiko biodegradagarriak eta konpostagarriak dira. Europako EN 13432 araua betez gero, behar bezala konpostatzeko ahalmena dute (materia organikoa tratatzeko fabriketan). Dena den, EAEn oraindik ez denez hondakin organikoak biltzeko sistema ezarri, ez da ontzat ematen bilgarri horiek bultzatzea.

⁶ *Autoak eraginkortasunez gidatzeko eskuliburua. 2007. Dibertsifikaziorako eta Energia Aurrezteko Institutua.*

3.4. Zerbitzua burutzearekin lotutako beste ingurumen alderdi batzuk

Mezularitza enpresak pakete bat entregatzean, hartzaileak paperezko hartu-agiri bat sinatu behar du. Horri lotutako eraginak hobetzeko, agiriak paper birziklatuzkoak izan beharko lirateke, edo hobeto, digitalak.






4. Ingurumen ziurtagiriak

4.1. Ibilgailuak

EBko 1999/94 Zuzentaraua onartu zenetik⁷, ibilgailuen saltokietan erregai kontsumoari buruzko informazioa eta CO₂ isuriena eskaini behar da energia etiketen bidez.

Etiketak bi osagai ditu: derrigorrezko etiketa, kilometro bakoitzeko ibilgailuaren kontsumoari eta CO₂ isuriei buruzko informazioa ematen duena eta, borondatezko etiketatzea energia eraginkortasunaren arabera. Horrek Atik Gra sailkatzen ditu ibilgailuak (handienetik txikienera).



Energia eraginkortasunaren sailkapenerako etiketa derrigorrezkoa ez denez, hainbat fabrikatzailek ez dute halakorik erabiltzen. Hala ere, Dibertsifikaziorako eta Energia Aurrezteko Institutuak urtero argitaratzen du gida bat Espainian salgai dauden modelo berri guztiekin eta haien sailkapenarekin. Gida hori edonork eskura dezake, eta Internetetik ere deskargatzeko moduan dago institutuaren webgunean: <http://www.idae.es/coches/>.

EURO estandarrekin zerikusia duen informazio gehiago edo zarata mailarekin loturikoa aurkitu daiteke ibilgailuen fitxa teknikoetan edo ibilgailuaren EBeko homologazio ziurtagirietan.

Motorrek ez dute ingurumen ziurtagiririk, baina errekuntza-gasen isurpenen edo zaraten inguruko informazioa motorrak homologatzeko CE ziurtagirietan jasotzen da.

⁷ 837/2002 Errege Dekretuak, abuztuaren 2koak (abuztuaren 3ko 185. BOE) egokitua.

4.2. Bilgarriak

Bilgarriak, batez ere, *paper eta kartoi birziklatuzko gutun-azalak eta kutxak*, lehen aipatu den bezala, normalean behin erabiltzen dira, ez badago administrazioaren barruan berrerabilera zirkuiturik. Beraz, paper birziklatuzkoak (gutxienez % 65 kontsumoaren ondoren) direla bermatu beharko da hurrengo hauen bidez:

Aingeru Urdina ekoetiketa (I. motako ekoetiketa)	
Fabrikatzailearen adierazpena (II. motako ekoetiketa) *	
<p>* Gutun-azalen hainbat fabrikatzailek beren logotipoa jartzen diete produktuei birziklatuak direla adierazteko; horretarako, birziklatutako zuntz kantitatea adierazi behar dute. Kontuz informaziorik ematen ez duten sinboloekin, adibidez, zuhaitz bat, izurdeak edota birziklagarriaren, ez birziklatuaren, hirukia.</p>	

Lehen aipatu bezala, *plastiko biodegradagarriko bilgarriak* materia organikoa biltzeko sistema bat ezarri arte sustatuko ez diren arren, erabiltzea erabakitzen dutenentzat esan behar da nazioarteko hainbat arau daudela plastiko biodegradagarrien/konpostagarrien inguruan, eta hainbat logotipo daudela, erakunde ziurtatzailearen arabera. Europako araua Estatu Batuetakoa baino zorrotzagoa denez, produktuek EN 13432 araua betetzen dutela bermatu beharko da. Hona hemen ziurtatzaile nagusiak:

<p>DIN CERTCO (Alemania), Alemaniako [DIN V 54900], Europako [EN 13432] eta Estatu Batuetako [ASTM D 6400] arauen arabera ziurtatzen du. Hainbat arauen arabera ziurtatu dezakeenez, fabrikatzaileen agiri osagarriak eskatu beharko zaizkie, produktuak gainditu dituen probak ezagutzeko, produktuaren logotipoan argi adierazten ez bada.</p>	
<p>AIB Vinçotte (Belgika), Europako arauaren arabera ziurtatzen du.</p>	
<p>Biodegradable Products Institut/ US Composting Council (Estatu Batuak), Estatu Batuetako arauaren arabera egiaztatzen du eta ez da, beraz, Europakoa bezain zorrotza.</p>	



5. Merkatuaren egoera: aukeran dagoen eskaintza

Mezularitza Enpresen Espainiako Elkartearen (AEM) datuen arabera, mezularitzaren kontzeptua, gaur egun ulertzen duguna (urgentea, malgua, dinamikoa,...) 70eko hamarkadan agertu zen Espainian. 80ko hamarkadan, eskaera hazi zen eta enpresa ugari sortu zituzten. Horien egitura 90eko hamarkadan berritu zen, krisialdi bati eta eskaeraren aldaketari aurre egiteko.

Beste sektore askotan bezala, 2000. urtetik aurrera enpresen kontzentrazioa nabaritu egin zen, askok bat egin zutelako, batzuek besteak erosi zituztelako edo eragileen arteko aliantzak sortu zituztelako, enpresei zerbitzu eskaintza zabalagoa emateko. Ondorioz, 2006an enpresetarako mezularitzaren % 46 (administrazioa barne) 5 eragilek menderatzen dute (talde handiak eta frankiziak). Hala ere, oraindik gehienak enpresa txikiak dira. 2006an enpresa guztien % 85ek 10 langile baino gutxiago zituen, eta 50 langile baino gehiagokoak % 2 besterik ez ziren⁸.

2006an Espainiako estatuan posta jardueretako enpresak guztira 5.500 ziren, eta 4 milioi euro⁹ inguru fakturatzen zuten, batez ere, Madrilgo Erkidegoan, Katalunian eta Andaluzian.

1.2. atalean esan bezala (Non gaude?), sektorean soldatapeko oso langile gutxi dago, eta gehienak autonomoak dira. Langilearen txandakatze horregatik, enpresetan dauden ibilgailuen ezaugarriak etengabe aldatzen dira, eta a priori zaila da enpresak aukeratzea. Beraz, kontratazioan informazio hori eskatu beharko da.

Bizikleta bidezko mezularitza enpresei dagokionez, orain Bilbon eta Getxon besterik ezin da zerbitzua kontratatu.

⁸ www.dbk.es/pdf/sectores/sumarios/Mensajería%20y%20Paquetería.pdf

⁹ www.dbk.es/pdf/sectores/sumarios/Mensajería%20y%20Paquetería.pdf

6. Ingurumen irizpideak

6.1. Prozedura irekian eta lehiaketa bidez esleituta kontratatzeko irizpideak

Kontratazio mota honetarako proposatzen diren irizpideak erantsitako CDan aurki ditzakezu. Mezularitza zerbitzurako bi eskakizun maila proposatu dira: oinarrizko maila eta maila aurre-ratua.

Administrazio bakoitzera hobe egokitzen diren zerbitzu mota eta eskakizun maila hautatu ondoren, maila bakoitzerako baldintzez eta klausulez gain, esleipenarekin eta eskaintza teknikoaren edukiekin lotutako irizpideen proposamena ere aurkituko duzu. Lizitatzailleek informazioa nola aurkeztu behar duten azaltzeko atal horren bidez, informazio hori errazago bildu ahal izango dute.

Kapitulua amaitzeko hornitzaileentzako zerrenda bat erantsi da, atxikitako CDan ere aurki daiteke. Baldintza teknikoaren pleguan ere eranskin moduan agertuko da, eskaintzen aurkezpena eta ebaluazioa errazte aldera.

6.2. Prozedura negoziaturako eta zuzeneko kontrataziorako irizpideak

Kanpo mezularitza zerbitzua negoziatutako prozedura bidez, kontratazio zuzen bidez zein prozedura ireki bidez kontratatzeko irizpide berberak erabiliko dira.

Barne posta zerbitzurako, administrazioak enpresari ibilgailu elektrikoak izatea eskatu diezaiolke, hiri barneko eraikinetan bidalketak egiteko. Bulegoren bat urrun izanez gero, enpresaren ibilgailu-flotaren eraginkortasun energetikoa balioztatu beharko da. Zerbitzua administrazioko langileek betetzen badute, administrazioak ibilgailu elektrikoaren bat izan beharko luke eraikin hurbiletara egindako bidalketarako eta beste ibilgailu eraginkor bat, eta CO₂ gutxi isurtzen duena, joan-etorri luzeagoak egiteko. Bilgarriei dagokienez, administrazioak ingurumenaren aldetik onenak direnak aukeratuko ditu, eta kutxa berrerabilgarriak erabiliko ditu barne-postarako eta urgenteak ez diren bidalketarako.